

ZIRKULAZIORAKO UDAL ORDENANTZA

ATARIKO TITULUA

HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. art.Eskumena.

Zirkulazio ordenantza hau egin da baliatuz udalerriei ondorengo legeek ematen dieten eskumenaz: Pertsonen eta ibilgailuen trafikoa antolatzeko 7/1985 Legeak, Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituenak, eta martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak. Eta eskumen hori bera erabiliz, Trafikoa, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua eta horrekin bat datorren araudia onetsi da.

2. art.Helburua.

Ordenantza honen helburua da hiri bide publikoen erabilera arautzea. Horregatik, bateragarri bihurtzen ditu oinezkoen eta motoredun ibilgailuen erabilerak; aparkalekuen erabilera razionalizatzen du eta denok erabil ditzagun ahalbidetzen da.

3. art.Aplikazio eremua.

Ordenantza honetako aginduak aplikatuko dira udal titularitatea edo kudeaketa duten bide publikoetan, eta behartuko ditu betetzera horien titular eta kudeatzaileak eta erabiltzaile guztiak. Bidearen erabiltzaileak dira oinezko, gidari, eta txirrindulariak; bai eta bide hori zenbait jarduera burutzeko erabiltzen duen beste edozein ere.

LEHEN TITULUA

HIRI ZIRKULAZIOA

I. KAPITULUA.ARAU OROKORRAK

4. art.

Bideen erabiltzaileek ezingo dute, inola ere, zirkulazioa oztopatu, ez arriskurik sortu; gainera, ez diete beste pertsona edo ondasunei alferreko kalte edo eragozpenik eragingo.

5. art.

Hiri bideetan lanak edo instalazioak burutzeko, aurretik udal baimena eduki beharko da, eta ordenantza honetan horri dagokion kapituluan xedatutakoa bete beharko da.

6. art.

Debekatuta dago bidean edonolako gaiak botatzea, aldi baterako jartzea edo bertan uztea baldin-eta horiek zirkulazioa oztopatuko, gelditu edo aparkatzea eragoziko badute eta, arriskutsu bihurtu, edo bidea edo kaltetuko baditu bertako instalazioak; bai eta hurbileko zirkulazioa edo aparkalekuak oztopatuko baditu ere.

7. art.

Ordenantza honetan arautuaren arabera, bidean ibiltzeko abiaduraren gehienezko muga 40 km/h da; hala ere, udal autoritateak, kasuan-kasuan muga hori beheragotu ahal izango du egoki baderitzo.

8. art.

Gidariak, ordenantza honetan xedatutako arauak bete beharko dituzte gidatzen duten bitartean, eta, arau hori ez balego, Trafikoa, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasunari buruzko Legea, eta horrekin bat datorren araudia jarraituko lukete.

II. KAPITULUA. OINEZKOAK

9. art.

Oinezkoek ez dute errepidean zirkulazioa oztopatu lezakeen jende-multzorik osatuko.

10. art.

Oinezkoek ez dituzte gainentzekoak oztopatu ditzaketen joku edo laisterketarik egingo.

11. art.

Paketeak, saskiak edo beste edozer gauza garraiatu behar dituzten pertsonak, espaloitik ahalik eta gertuen joango dira eta behar dena egingo dute gainentzeko oinezkoei ez eragiteko lesiorik, kolperik edo kalterik.

12. art.

Galtzada zeharkatu behar duten oinezkoak horretarako seinalizatutako oinezkoentzako pasabideetatik joango dira, semaforoek eta trafikoko agenteek (egotekotan) emandako seinaleei kasu eginez. Seinalizatutako pasabiderik ez badago, biderik laburrenetik eta ahalik eta epe laburrenean zeharkatuko dute galtzada.

III. KAPITULUA.ZIRKULAZIO NEURRI BEREZIAK

13. art.

Udal agintariek dagoen antolamendua aldarazi ahal izango dute, aldi baterako, ibilgailuak edo jendea pilatuta dauden lekuetan, segurtasunezko eta ordena publikozko arrazoiengatik, zirkulazioa arintzeko, egoera berezietan hala eskatuta, edo larrialdietan.

14. art.

Seinaleak kendu edota ipini ahal izango dira aldi baterako, aurreko artikuluan aipatutako balizkoetan, hala badagokio. Horretaz gain, prebentziozko neurriak hartu ahal izango dira, baita ibilgailuak bidetik kendu ere, ondo aparkatuta egon arren, eragozpen larriagorik ekiditeko.

15. art.

10 eta 11. artikuluetan aipatutako aldarazpenak egiteko arazoak desager-tutakoan, ohiko zirkulazio-antola-mendura itzuli beharko da, eta ahalik eta azkarren jakinaraziko zaio hori zirkulazio gaietan eskumena duen udal agintaritzari.

IV. KAPITULUA.SEINALIZAZIOA

16. art.

16.1. Udal titularitatea duten herri bideen seinalizazioa zirkulazio gaietan eskumena duen udal agintaritzari dagokio, eta ez beste inori. Udalaren sail horrek emango du, kasuan-kasuan, seinaleak jarri, kendu edo ordezteko agindua.

16.2. Herri bideetan ezingo da seinalerik jarri udal baimenik gabe. Baimen horretan, instalatu beharreko seinaleen kokapena, modeloa eta neurriak zehaztu beharko dira.

16.3. Zirkulazio gaietan eskumena duen udal agintaritzak kendu egingo ditu behar bezala baimendu gabeko seinalizazio guztiak, bai eta indarreango arauak betetzen ez dituztenak ere. Beraz kendu egingo dira, seinalearen itxura, kokapena edo diseinua arauzkoak ez dituztenak.

16.4. Seinaleak jarri dituenak ordaindu beharko ditu, Kentze lan horrek edo herri bidean eragin dezakeen kalteak sortutako gastuak; eta horretaz gain, zigorrak ere ezarri ahal izango zaizkio lege hauste horrengatik.

V. KAPITULUA.GERATZEA ETA APARKATZEA

1. ATALA. Geratzea

17. art.

Geldialdi bat egin dela esaten da ibilgailua bidean geldituta uzten denean bi minutu baino gutxiagorako,, zamalanetarako edo jendea hartu edo uzteko, baina gidariak ibilgailua utzi gabe. Gidariak kasu bereziren batean ibilgailua

utziko balu, eskura samar eduki beharko du, behar izanez gero, berehala handik kendu ahal izateko.

17.1. art.

Geldialdia zirkulazioa ahalik eta gutxien oztopatzen den lekuan egingo da espreski debekatuta ez dauden eremu edo herri bideetan

17.2. art.

Espaloirik gabeko kale urbanizatueta, geldialdia hurbileneko fatxadatik gutxienez metro eta erdira egin beharko da.

18. art.

Geldialdiak ez du zirkulazioa ozto-patuko, ez da arriskutsua izango bidean dabilzan gainerakoentzat eta ondo zainduko da ibilgailua non kokatzen den. Beti ere, geldialdia eskuineko espalaira hurbilduta egin beharko da, zirkulazioaren norantzan; norantza bakarreko bideetan ezkerretan ere gelditu ahal izango da. Bidaiariak espaloi alderako atetik irten beharko dute. Gidariak ibilgailutik jaitsi beharko balu, beste aldetik irten ahalko litzateke, inolako arriskurik ez dagoela egiaztatuta.

19. art.

Honako kasuetan debekatuta dago geratzea:

a) Arauz geratzea debekatuta dauden lekuetan edo disko edo seinalez hala adierazita daudenetan. Hala ere, larrialdi zerbitzuetan lanean dabilzanak geratu ahal izango dira.

b) Ibilgailu edo jendearen zirkulazioan oztopo edo eragozpen larria sortzen dutenean, bi minutu baino gutxiagokoa izan arren.

c) Ordenantza honen edo alkatearen dekretuaren arabera, zirkulazio trinkoa eta lehentasunezkoa duten bideetan, horretarako prestatutako eremuetan salbu.

d)Etxe eta eraikinen sarreretan, baldin badaukate dagokien pasabidea eta ibilgailuentzako sarrera-irteera direla behar bezala seinalizatuta badaude.

e)Behar bezala seinalizatuta dauden zerbitzu publikoetarako, erakunde ofizial edo larrialdi zerbitzuetarako ibilgailuen geralekuetan.

f)Zirkulazio martxaren kontrako bide aldean.

g)Bigarren ilaran.

h)Aterpe, irlatxo, erdibitzaile, babes eremu eta trafikoaren bideratzaile diren gainerako elementuen gainean.

i)Espaloi, pasealeku eta oinezkoentzako eremu direnen gainetan.

j)Izkina, bidegurutze edo bidebanatze batetik 5 m baino gutxiagora.

k)Zubi, trenbide-pasagune eta tuneletan eta gaineko pasabideen azpian, kontrako seinalerik ez badago behintzat.

l)Geldialdiak zirkulazio seinaleak ikustea eragozten duenean.

m)Erabiltzaile jakin batzuen zirkulaziorako baino ez diren errietan, hots, garraio publiko edo taxientzako errietan.

n)Txirrindularientzat baino ez diren errietan.

2. ATALA.Aparkatzea

20. art.

Geldiarazita edo geldialdian ez dagoen baina geldirik dagoen ibilgailua aparkatuta dago, ez badago behintzat zirkulazioarengatik edo legezko betebeharren batengatik geldituta.

21. art.

Aparkatutako ibilgailuak ez du oztopatuko bideko gainerako erabiltzaileen zirkulazioa eta ez da inorentzat arriskutsua izango; gainera, gidariak kokapena bereziki zainduko du eta bera ez dagoenean ibilgailua ez dela mugituko ziurtatu beharko du. Horretarako, behar adinako neurriak hartu beharko ditu eta, ibilgailua lekuz aldatzen bada berez edo hirugarren batek eraginda, sor ditzakeen kalteen erantzulea bera izango da, non eta ibilgailua mugitzeko hirugarren horrek gogorkeria edo indar nabaria erabili ez badu behintzat.

22. art.

Ibilgailuak lerroan edo zeharka aparkatu ahal izango dira.

Zeharka aparkatzean ibilgailuak elkarren alboan kokatzen dira, zintarri edo espaloiarekiko elkarzutean edo zeiharrean.

Zoladuran seinalizatuak dauden aparkalekuetan, ibilgailuak markatutako perimetroaren barruan ipini beharko dira eta bakoitzarentzat markatutako plazak bakarrik hartuz.

23. art.

23.1. Norantza bikoitza duten bideetan, aparkatzea debekatuta ez dagoenean, norantzaren eskuinaldera aparkatu beharko da; beti ere, bide seinaleen esana betez.

23.2. Norantza bakarreko bideetan, bi aldeetara aparkatuko da, dauden seinaleak errespetatuta.

24 art.

Gidariak zintarritik ahalik eta hurbilen aparkatu beharko du, baina 20 cm utzi beharko ditu espaloiares zintarritik gorpilaren kanpoaldearen artean, bidearen alde hori garbitu ahal izan dezaten.

25. art.

Ezin dira atoi eta karabanak bidean aparkatu baldin-eta ibilgailu tiratzaileari lotuta ez badaude.

26. art.

Autokarabanak ezingo dira aparkatuta eduki bi egun jarraian baino luzeagoz leku batean.

27. art.

27.1.Udal agintaritzak zamalanak burutu ahal izateko aparkalekuak gorde eta seinalizatu ahal izango ditu.

27.2.Zamalanak burutzen ari den edozein ibilgailuk erabili ahal izango ditu zamalanetarako gordetako aparkalekuak, lan horrek irauten duen bitartean; baina ez du gaindituko seinalean ezarrita dagoen gehienezko epea.

27.3.Eraikuntzan edo eraikinen zaharberitze eta erauste lanetan, baldin eta orubeen barrenean lekurik ez badago, zamalanetarako espazio bat prestatu beharko da; beti ere, espazio hori zirkulazio gaietan eskumena duen agintaritzak luzatutako txostenak ezarritako baldintzak eta neurriak bete beharko ditu.

28. art.

28.1.Aparkatzea debekatuta dago leku eta kasu hauetan:

a)Bertako seinaleek debekua adierazten dutenean.

b)Geratzea debekatuta dagoenean.

c)Bigarren lerroan, edozein balizkotan.

d)Zamalanetarakogordetako lekuetan, indarrean dagoen ordutegi barrenean.

e) Zerbitzu publikoko ibilgailuak, erakunde ofizialetakoak, ordezkaritza diplomatikoetakoak, larrialditakoak edo poliziarenak aparkatzeko gordetako lekuetan.

f) Ikuskizun edo ekitaldi publikoetarako diren eraikinetarako sarbideen aurrean, ospakizun orduetan.

g) Arauz aparkatuta dauden beste ibilgailuen irteera oztopatzen dutenean.

h) Sarrera gorderako lizentziaz babestutako sarbideetan, indarreango epean.

i) Ibilgailu kategoria jakin batzuen zirkulaziorako gordetako karriletan.

j) Herri lanak, garbiketa, egintza publikoren bat edo kirol ekitaldiren bat delako aldi baterako seinalizazioa duten lekuetan.

k) Espaloirik gabeko kale urbanizatuetan, horretarako araudi berezia ez badago behintzat.

l) Udal Garbiketa Zerbitzuaren edukinontzietarako gordetako lekuetan ez eta hauen aurrean.

m) Espaloi, pasealeku eta oinezkoentzat diren gainerako lekuen gainean.

n) Era batera edo bestera elbarrituriko jendeak baino ez erabiltzeko direla seinalizatutakolekuetan.

o) Aparkaldi berezitua duten gunetan, horretarako baimendutako ibilgailuek baino ezingo dute aparkatu.

p) Zirkulaziorako jarrita dauden erreietan.

q) Debekatuta dago ibilgailua kalean aparkatuta uztea, bertan betiko utzia dela susmatzen bada.

28.2. Artikulu honetan ezarritako arauak aldagai izan daitezke, baldin eta kasuan kasuko seinaleek hala adierazten badute.

28.3.Dena dela ere, debekatua dago biziexetarako herri-gunean 3.500 Kg. baino gehiagoko kamioiak aparkatzea.

3. ATALA.Aparkatzeko baimen-txartelak

29. art.

Aparkatzeko baimen-txartelak bi motatakoak izango dira:

a)Pertsona ezinduak garraiatzen dituzten ibilgailuentzako aparkatzeko txartelak; horiek Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren urriaren 17ko 236/1989 Dekretuz sortu ziren.

b)Zirkulazio gaietan eskumena duen udal agintaritzak herri erabilgarritasunerako edo gizarte intereserako luzatutakoak.

30. art.

Pertsona ezinduak garraiatzen dituzten ibilgailuentzako aparkatzeko txartelak aipatutako 236/1989 Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko dira, baina baimena erabiltzeko baldintzen 3. atalean aipatzen den zentzuzko epea ez da ordu betekoa baino luzeago izango; hala ere, epe hori luzatu ahal izango da behar bezala egiaztatutako arrazoiak aurkeztuz gero.

31. art.

31.1.29. b) artikuluan aipatzen diren txartelak honako betekizunei lotuko zaizkie:

a)Neurri eta formato bakarrean luzatuko ditu zirkulazio gaietan eskumena duen agintaritzak.

b)Baimenaren identifikazio kodea adierazita egongo da.

c)Baimendutako ibilgailuaren matrikula, indarraldia eta aparka dezakeen lekua espreski adierazita egongo da.

d) Aldian-aldian, eman diren baimenen zerrendak bidaliko zaizkie udal zerbitzuei.

31.2. Txartelen indarraldia urtebetekoa izango da eta berriro egingo da baldin eta baimena emateko bete ziren baldintzei eusten bazaie.

31.3. Aparkaldi gordea erabiltzen dutenek ibilgailuan ikusgai dagoen lekuan jarri beharko dute zirkulazio gaietan eskumena duen agintaritzak luzatutako baimen-txartela.

BIGARREN TITULUA

BIDE PUBLIKOETAN EGINDAKO JARDUERAK

II. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA

1. ATALA. Arau orokorrak

32. art.

32.1. Herri jabetza okupatu behar bada hainbat egintza, instalazio edo antzekoetarako, orokorrean aurretik baimena eskatu beharko da bai udal titularitateko bide publikoan, bai beste administrazioen titularitatekoetan ere, baldin eta udalak eskumenak baditu, gutxienez, trafikoaren antolamendurako eta arauketarako.

32.2. Lana herri bideetan burutzen duten zerbitzu publikoek, trafikoaren arintasuna oztopatzen badute, zirkulazio gaietan eskumena duen udal sailak horretarako finkatutako ordutegiaren barrenean burutu beharko dute euren egitekoa.

33. art.

33.1. Monumentu historiko-artistikoen inguruetan okupatzen bada bide publikoa udalak kasuan-kasuan aztertuko du baimena eman edo ukatzea jende-holde edo ibilgailuentzat arriskutsu izan badaiteke. Horretarako, txosten teknikoak aztertuko dira. Txosten horiek hartuko ditu kontuan, besteak beste: Oinezkoen

pasabideak, jendearentzako sarrera duten lokal publikoen sarbide eta irteerak, trafiko seinaleen ikusgaitasuna, eta halakoak.

33.2. Baimena lortzen duenak delako eremu horren garbitasuna zaindu beharko du arretaz, eta burututako jarduerak zoladuran edo beste lekuren batean eragin ditzakeen kalteak konpondu beharko ditu.

33.3. Baimen hauek behin-behinekoak dira eta ez diote titularrari inolako eskubide berezirik ematen. Beraz, Administrazioak baimena indargabetu ahal izango du trafikoaren egoerak edo halako arazoren batek hala eskatzen duenean.

2. ATALA. Lanak eta zerbitzuak bide publikoan

34. art.

34.1. Bide publikoan debekatuta daude baimenik gabeko lanak, eta baimena edukita ere, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko eguneko eta gaueko babes-neurriak eta seinalizazioak jarri beharko dira.

34.2. Udal zerbitzuek lan horiek burutzeko hartu beharreko gutxieneko babes eta seinalizazio neurriak zehaztuko dituzte, beti ere, lanak burutu bitartean sortu daitekeenaren arabera.

34.3. Lanak bukatutakoan lizentziaren titularra arduratuko da bere poltxikotik, aurretik zeuden seinaleak berriro ere jartzeaz eta seinalizazioaren eta mugarritzeen mantenimenduaz.

35. art.

35.1. Behin beharrezko baimena lortutakoan, aparkatzeko egokia izaki lanak egiteko erabiliko den galtzadaren aldean, «gelditzea eta aparkatzea debekatuta» dioten plakak ezarriko dira lanak hasi baino 48 ordu lehenago, larrialdi batengatik ezin izan denean salbu.

35.2.Premiazko matxuren konponketa, hots, berehala konpondu ezean ondasun edo pertsoneri kalte larria sor diezaieketenak, burutu egingo dira, aurretik babes neurriaz eta seinalizazioaz arduratu ondoren.

36. art.

36.1.35. artikulua lehen atalak aipatzen duen epean, obren esleipena duen enpresak oharrak ipiniko ditu han aparkatuta dauden ibilgailuen kristal-haizetakoan, eta ibilgailu horien matrikulak jasoko ditu zerrenda batean. Horrela, ibilgailu horien titular edo gidariek handik kendu egin beharko dituzte. Aparkatzea debekatzen duten seinaleak jarrita egonda aparkatzen duten ibilgailuak udal garabi zerbitzuak kenduko ditu handik, Zirkulazio Kodearen 292. III b). 12. Artikuluari jarraituz, eta jar dakizkiokeen zigorren kaltetan izan gabe.

36.2. Aparkatzea debekatzen duten seinaleak jarri baino lehen aparkatutako ibilgailuak, eraman egingo dira jabea aurkitu ezin izan denean hurbileko lekuren batera, ibilgailuentzako udal gordailura kasu berezietan bakarrik eramango dira eta, hala denean, jabeak ez du ezer ordaindu beharko sortutako tasengatik.

37.art.

Ibilgailua bidearen hurbileneko lekura mugitzea, behar bezala justifikaturiko larrialdi batengatik berehala kendu behar izatekotan, udalaren kargura izango da.

3. ATALA.Oztopoak bide publikoan

38. art.

Debekatuta dago herri bideetako oinezko edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen duen edo trafiko seinaleak ikustea eragozten duen edonolako objekturik jartzea.

39. art.

Herri bidean ezinbestean oztoporen bat jarri behar denean, udal baimena eskatu beharko da;gero, oztopoa behar bezala babestu eta seinalizatu beharko

da; gauetan, argituta egongo da herri bideen erabiltzaileen segurtasuna bermatuta egon dadin.

40. art.

Udal agintaritzak, baimenak emateko eskumena izaki, oztopoak kentzeko aginduko du, eta agindua bete ezean, bera arduratuko da kentzeaz; lan horrek sortutako gastuak oztopoa han jarri zuenak ordaindu beharko ditu kasu hauetan:

a)Horretarako behar den udal baimena lortu ez denean.

b)Baimenean zehaztutako baldintzak betetzen ez direnean.

c)Oztopoa edo objektua han uzteko arrazoiak agortu direnean.

d)Baimenak zehaztutako epea gainditzen denean.

e)Oinezkoen edo ibilgailuen zirkulaziorako arriskutsuak direnean.

41. art.

Udalak bere poltsikotik kendu edo mugitu ditzake oztopoak segurtasun eta garbitasunezko arrazoiengatik eta baita ere neurri hori zurituko duten premiazko lanak, ikuskizunak baimendutako segizioak eta antzeko balizkoetan.

42. art.

Herri erabilerako espaloietan eta bestelako lekuetan kale-tresnak instalatzekotan, oinezkoen zirkulazioa ez oztopatzeko moduan jarriko dira; bereziki elbarritu eta ikusmenarekin arazoak dituztenak kontuan hartuko dira.

4. ATALA.Edukinontziak

43. art.

Herri bidean edonolako edukinontzi instalatzeko, udal baimena eduki beharko da.

44. art.

Herri bidean jarritako edukinontzietan beronen jabe den enpresaren izena adierazita egongo da.

45. art.

Beharrezko baimena ez duten edukinontziak, edo aurreko artikuluan aipatutako datuak ez dituztenak, bertatik kendu ahal izango dira titularraren kargura, eta salaketak ere jarri ahal dakizkioke titularrari.

5.ATALA.Kirol probak - kultur jaruderak, jaiak eta halakoak

46. art.

46.1.Kirol, kultura, jai edo halako ekitaldietan galtzada hartzen denean, udal baimena beharko da; gainera, aurretik, udal zerbitzuen txostena ere beharko da. Baimen horretaz gain, ekitaldia burutzeko behar diren gainerako baimenak ere lortu beharko dira, badagozkio.

46.2.Baimena emateko honako baldintzak bete beharko dira:

1.Jabegorako sarbideak zainduta egongo dira, bai eta larrialdietako ibilgailu eta garraio publikoentzako pasabideak ere.

2.Ekitaldiak amaitzean, bideak libre geratu beharko dute, eta baimenaren titularrak izango dira zoladuretan edo espaloietan gerta daitezkeen kalteen erantzule. Horretaz gain, berehala kendu beharko dira bidetik ospakizunerako jarritako oholtza edo halakoak.

47. art.

Aipatutako baimenak aldi baterakoak izango dira, eta ez diote inolako eskubiderik sortzen onuradunari. Beraz, indargabetuak izango dira baldin-eta trafikoaren gorabeherak, arriskuak edo halakoren batek hala eskatzen badu.

48. art.

Horrelako ekitaldiak ospatzeko, antolatzaileak beharrezko giza baliabideak eta materialak edukiko ditu, segurtasuna eta babesa ziurtatuta egon daitezen. Hala ere, Udaltzaingoak segurtasun zerbitzu hori bere aldetik zabaldu ahal izango du, ibilgailuen trafikoa edo oinezkoena errazteko.

49. art.

Ekitaldien antolatzaile den pertsona edo erakundeak arduratu beharko du aurrean aipatutako neurri horiek ospakizun amaierara arte iraun dezaten. Hala ez bada, udal zerbitzuek ospakizuna bertan behera uztera behartu ahal izango diete.

8. ATALA.Makina saltzaileak eta jolaserako instalazioak

50. art.

Arau orokor gisara, herri erabilerarako ondasunak okupatzea debekatuta dago eta, bereziki makina saltzaileak eta jolaserako instalazioak jartzea, zerbitzu publikoen barrenean sartzen ez direnean.

7. ATALA.Bide publikoan debekatuta dauden erabilerak

51. art.

Arau orokor gisa, debekatuta dago herri bide, kale eta plazetan jolasak burutzea baldin-eta horiek gainerako oinezko edo ibilgailuentzat edo jostalarientzat beraientzat arriskutsuak badira. Jolaserako berariaz prestatutako lekuetan burutzen badira bestela izango da.

52. art.

Aurreko debekuaren esana betetzen ez denean, jar daitekeen salaketa jartzeaz gain, Udal Agintaritzak jolaserako gaia edo objektua kenduko die jostalariei.

HIRUGARREN TITULUA

ERREGULAZIO BEREZIKO ZIRKULA ZIOA DUTEN EREMUAK

I. KAPITULUA.OINEZKOENTZAKO GUNEAK

53. art.

Udal Administrazioak ibilgailuen zirkulazioa ixteko agindua eman dezake, alde batean edo guztiz, behin-behinean edo behin-betiko, herri erabilera duten bideetan, egoki baderitzo.

54. art.

Oinezkoentzako guneak modu egokian seinalizatuta egongo dira, sarreran nahiz irteeran; seinalizazio horren osagarri izango dira hainbat elementu mugikor, zeinen bitartez mugatuko baita gunearen barruan ibilgailuen sarrera eta zirkulazioa. Hala ere, alderdiaren diseinuak, egiturak, apaingarriak edo zolaketak oinezkotasuna ageri-agerian uzten badute, ez da halakorik beharko.

55. art.

Oinezkoentzako guneetan ibilgailuen zirkulazio eta aparkatzearen debekua berezia izan daiteke, eremuaren arabera:

a)Eremuaren perimetroak mugatzen dituen kale guztietan egon daiteke debekua, edo batzuetan bakarrik.

b)Ordutegi jakin bat eduki dezake edo ez.

c)Debeku finkoa izan daiteke, edo asteko egun jakin batzuetarakoa baino ez.

56. art.

Jarritako mugak direnak direla, ez dute eraginik izango ondorengo ibilgailuen zirkulazioan eta aparkatzean:

a)Zamalanak burutzen dituztenak, horretarako prestatutako ordutegian.

b)Larrialdietako eta zerbitzu publikoetako ibilgailuak, halako zerbitzuak egiten ari diren bitartean.

c)Baimendutako ibilgailuak, dagokien txartela dutenean.

57. art.

Oinezko guneen erregimena arautu edo osatu ahal izango da alkate-udalburuaren dekretuz.

II. KAPITULUA.BIDEGORRIAK

58. art.

Udal Administrazioak jarri ahal izango ditu txirrienduen zirkulaziorako bakarrik diren bideak, eta horiek behar bezala seinalizatuta egongo dira.

59. art.

Bide horietan debekatuta dago edonolako ibilgailu, motozikleta, ziklomotore eta txirrindua ez den bestelako elementu mugikorrik ibili edo aparkatzea.

60. art.

Oinezkoek bide hauek gurutza-tzekotan, bertan seinalizatutako oinezkoentzako pasabideetatik igaro beharko dute.

61. art.

Arau orokor gisa, txirrirentzako bideek ezingo dute oinezkoentzako bide edo parke publikorik zeharkatu. Hala ere, kontrakoa xedatuz gero, txirriak bidearen ezaugarrietara egokituko dira, eta kontu handiz gurutzatu beharko dituzte oinezkoentzako alderdiak eta parke publikoak.

LAUGARREN TITULUA

ZIKLOMOTOREEN ZIRKULAZIOA

62. art.

Iruratik zirkulatzen duten ziklomotoreek ordenantza honetan xedatutakoa bete beharko dute; gainera, azterketa pasa beharko dute, horretarako prestatutako lekuetan, titularrei hala eskatzen zaienean.

63. art.

Udal zerbitzuek ziklomotorean arazoren bat somatzen dutenean, hau da, zilegi diren mugaz gaindiko zarata edo gas isurtzeak baditu jatorrizko ezaugarriak aldatu dizkietela susmatzen badu, abiadura, potentzia, eta abarreatatik, errekerimendu orria emango dio gidariari; orri horretan, arazo horiek aipatuko ditu eta gidariari hamabost eguneko epea emango zaio, ziklomotorearen arazoak konpondu eta udal agintaritzaren aurrean aurkeztu dezan.

64. art.

Udal bideetatik matrikula plakarik gabe dabilzan ziklomotore guztiak salatuak izango dira, eta ibilgailuen udal gordailura eramanak izango dira.

65. art.

1.Hiru edo lau gurpileko ziklomotore kabinadunak, ezingo dira aparkatu bi gurpileko ziklomotore eta motozikle-tentzako gordetako lekuetan. Arau hori haustea salaketa ekarriko du eta ibilgailuen udal gordailura eramatea.

2.Aurreko artikuluan aipatutako ibilgailuek Trafiko eta Aparkalekuari buruzko Ordenantzan datozen arauak bete beharko dituzte.

66. art.

1.Ziklomotore edo motozikleta bat baino gehiagok taldean zirkulatzen dutenean, bata bestearen atzean zirkulatuko dute, elkarren artean segurtasun distantzia errespetatuz eta abiadura edo abilitade lehiarik egin gabe. Elkarren parean zirkulatzea debekatzen da.

2.Motozikletek (motokros, trial, etab.) debekatuta dute hirigunean zirkulatzea. Bizilekutik mendirainoko edo hondartzarainoko bide motzenetik zirkulatu ahal

izango dute soilik. Inola ere, ezin izango dute zirkulatu eskaileretatik edo oinezkoentzako guneetatik, ezta ausardiazko jarreraik izan ere.

BOSTGARREN TITULUA

IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA

67. art.

Udaltzaingoak ibilgailu bat herri bidetik kentzeko eta ibilgailuen udal gordailura eramateko agindua eman ahal izango du honako moduan aparkatuta dagoen kasuetan:

1. Arriskutsua den lekuetan.
2. Oinezko edota ibilgailuen zirkulazioa zakarki oztopatzen duenean
3. Zerbitzu publikoren bat oztopatu edo tratatzen duenean.
4. Herri Ondarean kalte edo galerak eragiten dituenean.
5. Utzita baldin badago.
6. Zirkulaziorako edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako gordetako bide-alderdietan daudenean.
7. Zirkulazioa oztopatzen duen istripuren bat dagoenean.
8. Narriatuta dagoela-eta geldirik geratu denetan.
9. Legez edo arauz aurrikusitako beste balizkoren batean.

68. art.

Ondoren aipatuko ditugun balizkoetan ulertuko da ibilgailu baten aparkatzea arriskutsua dela gainerako oinezko edo gidarientzat:

1. Kale gurutzeetan eta hortik hurbil, ikusmena murrizten dutenean.

- 2.Zirkulazio seinaleak ikustea eragozten duten lekuetan aparkatutakoan.
- 3.Espaloiarene izkinako erpinetik kanpora geratzen denean, gainerako gidariak euren ibilbidea aldarazi edo biratzea oztopatzen dutenean.
- 4.Ikuskizun publikoetarako lokalen larrialdietarako irteerak oztopatzen direnean, irekita egoteko orduetan bada.
- 5.Zirkulaziorako jarritako bide-alderdietan.
- 6.Trafikoa bideratzeko erdibitzaile, oinezkoentzako babesgune edo halakoetan.
- 7.Marra zuriz seinalizaturiko zoladura eremuetan.

69. art.

Ondoren aipatuko ditugun balizkoetan ulertuko da ibilgailu baten aparkatzeak larriki oztopatzen duela gainerako oinezko edo gidarien zirkulazioa.

- 1.Gelditzea debekatuta dagoenean.
- 2.Aparkatzea debekatuta dagoen lekuetan salaketa egin eta 24 ordu igaro direnean.
- 3.Beste ibilgailu batzuei bidea ixten dienean.
- 4.Higiezin baterako sarrera-irteera pasabidea ixten duenean.
- 5.Behar bezala aparkatutako ibilgailu bati zirkulazio bidera irtetea eragozten dionean.
- 6.Bigarren lerroan eta gidaririk gabe aparkatuta dagoenean, edo gidaria barruan egonik handik mugitzeko aginduari muzin egiten dionean.
- 7.Oinezkoen alderdi batean aparkatuta dagoenean, zilegi den ordutegitik kanpo, berariaz baimendutako aparkatzeak salbu.

8. Ibilgailuen zirkulaziorako edo gainerako erabiltzaileen zerbitzurako gordetako bide-aldeak hartzen direnean.

9. Oinezkoentzako pasabideetan, txirrinduentzakoetan edo handik hurbil aparkatuta daudenean.

10. Espaloian, oinezkoen babeslekuetan eta oinezkoentzat gordetako beste eremuetan aparkatuta dagoenean.

11. Zirkulazio mordotua edo lehentasunezkoetat hartutako bideetan, aparkatzeko prestatuta dauden eremuetatik kanpo aparkatuta baldin bada.

12. Elkargunean, izkinatik 5 m baino gutxiagora aparkatuta dagoenean, aparkatzea zilegi denean salbu.

70. art.

Aparkatzeak zerbitzu publikoaren lana oztokatuko du kasu hauetan:

1. Garraio publikorako ibilgailuentzat gordetako lekuetan aparkatzen bada.

2. Garraio publikorako ibilgailuentzat gordetako bideetan aparkatzen bada.

3. Hiri hondakin solidoen edukinontziak, edo beste hiri altzariren bat jartzeko gordetako lekuetan aparkatzen bada.

4. Larrialdi eta segurtasun zerbitzuen-tzat gordetako irteeretan egiten bada.

5. Herri bideetan lanak direla eta, ibilgailua oztopo denean, eta herri bideetako lanei dagokien kapituluan xedatutakoa betetzen ez denean.

71. art.

Herri ondareari kaltea eragin zaiola pentsatuko da baldin eta lorategi, landarehesi, zuhaizti eta hiriaren apaingarri diren bidearen zatiak kaltetzen badira.

72. art.

Udal agintaritzak ibilgailu bat abandonaturik utzita dagoela ulertuko du kasu hauetan:

1.Hamasei egun baino epe luzeagoan bideko leku berean aparkatuta dagoenean.

2.Oso hondatua dagoela nabari dnean.

3.Ibilgailuaren matxuraren ondorioz berez mugitzeko ahalbiderik ez duenean.

73. art.

Era berean, kaletik kentzeko arriskuan egongo dira udal agintaritzak erabilera jakin batzuentzat gordetako lekuetan, aldi baterako edo iraunkor, aparkatuta dauden ibilgailuak. Hala izango da kasu hauetan:

1.Zamalanetarako lekuetan aparkatuz gero.

2.Ezinduentzako ibilgailuentzako apar-kaleku berezien eremuetan aparkatuz gero.

74. art.

Behar bezala aparkatuta egonda ere, udal agintaritzak ibilgailuak herri bidetik kentzeko ahalmena izango du ondorengo kasuetan:

1.Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko bat burutzekoa den lekuetan aparkatuta daudenean.

2.Herri bideen garbiketa, konponketa edo seinalizazio lanak burutzekoak diren lekuetan aparkatuta daudenean.

3.Larrialdietan.

4.Autokarabana bat leku berean 8 egun jarraian edo luzeago aparkatuta egon denean.

5.Ibilgailu tiratzailerik gabe aparkatutako karabana edo atoiak.

75. art.

Legez aurrikusitako salbuespenak eta dagokion Zerga Ordenantzan jasotakoak alde batera utzita, ibilgailua kaletik kentzeak eta gordailuko egonaldiak sortutako gastuak titularrak ordaindu beharko ditu edota ordainketa bermatu. Bestela ezingo du ibilgailua handik jaso; gero errekurtsua jartzeko eskubidea izango du. Beste alde batetik, ibilgailua titularrak edo honen baimena duen pertsonaren batek baino ezingo du jaso.

76. art.

Ibilgailua bidetik kentzeko lana geratu egingo da baldin eta garabiak, ibilgailua atzean lotuta duela, ibiltzeari ekin aurretik gidaria agertzen bada. Kasu horretan, gidariak egoera okerra konponduko du, dagokion zerga tasa sortzearen kaltetan izan gabe.

77. art.

77.1.Udal Agintaritzak berehala kenduko ditu kaletik bertan utzitako gauzak baldin eta horien arduraduna agertzen ez bada. Gauzok udal gordailura eramango dituzte.

77.2.Era berean jokatuko da oinezkoen edo ibilgailuen bidea oztopatzen duten gauzekin, bai eta jabeak handik berehala kentzeari uko egiten badio ere.

77.3.Gauza horiek kaletik kentzeak eta gordailuko egonaldiak sortutako gastuak titularrak ordaindu beharko ditu, edo ordainketa bermatu. Bestela ezingo ditu gauzok handik jaso; gero errekurtsua jartzeko eskubidea izango du. Beste alde batetik, titularrak jasoko ditu gauza horiek.

78. art.

Era berean, Ordenantza honetako II.Tituluaren II. Kapituluaren 3. Eta 4. Ataletan xedatutakoa urratzen duten oztopoak eta edukinontziak herri bidetik kendu egingo dira. Horiek kaletik kentzeak eta gordailuko egonaldiak sortutako gastuak titularrak ordaindu beharko ditu, edo ordainketa bermatu. Bestela

ezingo ditu gauzok handik jaso; gero errekurtsua jartzeko eskubidea izango du. Titularrak edo honen baimena duen pertsonaren batek baino ez ditu jasoko gauza horiek.

SEIGARREN TITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

79. art.

Trafiko eta zirkulazioa arautzen duen legedi orokorra urratzea, eta Ordenantza honetan jasotako arauak ez betetzeak edo kontuan ez hartzeak arau-haustea sortuko dute; horiei, dagokien zigor jardunbidea ezarri eta indarrean dauden legeen arabera zigortuko dira.

80. art.

Arau-hausteen larritasuna kontuan hartuta, arin edo larritzat hartuko dira.

81. art.

Ordenantza honetan aipatzen ez diren trafiko eta bide segurtasunari buruzko araudiaren hausteak edo kontuan ez hartzeak martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretuan xedatutakori jarraituz tramitatuko dira. Dekretu horren bidez, motoredun ibilgailuen trafikoari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu artikuluduna onesten da. Urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuan xedatutakoa ere jarraituko da; bertan, aipatutako testu artikuluduna aplikatzeko eta garatzeko Zirkulazioaren Araudi Orokorra onesten da. Bestalde, horrekin bat datorren araudia ere kontuan hartuko da. Zigor jardunbide gisa otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan jasotakoa aplikatuko da, eta, horren osagarri gisa, abuztuaren 4ko 1398/1994 Errege Dekretua, ahalmen zigortzailea egikaritzeko prozedurarena, hartuko da. Horiek guztiak huts egitean, legez horien ordezkari diren arauak hartuko dira kontuan.

ZAZPIGARREN TITULUA

ZIGOR JARDUNBIDEA

82. art.

Otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan jasotako prozedura aplikatuko da. Horren bitartez onesten da trafiko, motoredun ibilgailuen zirkulazio eta bide segurtasunari buruzko zigor jardunbidea. Horren ordezkoko arau gisa, abuztuaren 4ko 1398/1994 Errege Dekretua, botere zigortzailearen egikaritzarako prozedurari buruzkoa. Horiek guztiak huts egitean, legez horien ordezkoko diren arauak hartuko dira kontuan.

AZKEN XEDAPENA

Xedapen bakarra.

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko izaerarekin argitaratutako egunetik 15 egun eraginkor pasatakoan.

Irura, 2003ko urtarrilaren 27a—Marimi Ugalde Zabala, Alkatea. (3679)

Eginbidea: Zirkulazioko Udal Ordenantza, Udalbatzak onartua behin behineko izaerarekin 2003ko otsailaren 4an.

Honoko Erabakikuntza honen bitartez, bide administratiboari bukaera ematen zaio eta beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Euskal Herriko Zuzentza Epaitegi Goreneko Adminis-trazioarekiko Auzietarako Aretoaren aurrean, bere jakinarazpena jaso ondorenean zenbatzen hasi eta bi hilabeteko epean.

Era berean, Birjarpeneko Errekurtsoa ere jarri ahal izango da udalean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita